

2009ko POSTAL LEHIAKETA

ZERTAN DEN:

Oporretan edonora zoazela hango postal bat bidali Elexostera eta, horrela, non izan zaren erakutsi.

SARITUKO DENA:

Gauza bi sarituko dira: lehena postala polita izatea eta bigarrena leku horren deskribapena.

**1. saria:
bidaia
Kanariar
Irletara!**

DESKRIBAPENA:

Postala izanik, deskribapen laburra izatea komeni da: lekuarena, jendearena, ekarri dizkizun inpresio pertsonalak,... Ez ahaztu zurekin harremanetan jartzeko telefonoa eta izena ipintzea.

ZELAN, NOIZ ETA NORA BIDALI:

Posta zerbitzu arruntez bidali behar da, bere seilua, mataseilua eta guztiz. Postalak jasotzeko epea 2009ko irailaren 30an bukatuko da. Honako helbidera:
Postal lehiaketa
Euskal Birusa Elkarte Kulturala
247 Postakutxa
48260 Ermua (BIZKAIA)

SARIAK ETA SARI BANAKETA:

Sariak, 2009ko urriaren 17an, zapatuan, banatuko dira Lobianon, 12:00etan.

Hiru sari egongo dira:

1. Tenerifera astebeteko bidaia 2 lagunentzat, 3 izarreko hotelean, pentsio erdian. 2010eko udaberria baino lehen disfrutatzeko, behe denboraldian. Eskualdagarria.
 2. Bi lagunentzako asteburu pasa landetxe batean.
 3. Bi lagunentzako egun pasa Spa batean.
- Saririk jaso ez dutenen artean Mendiola jatetxean 2 lagunentzako afaria zozketatuko da (75 euroko balioarekin).

GAZTE TXOKOA (12 urte arte)

Hiru sari banatuko dira:

1. 50 euro erosketa txekean.
2. 40 euro erosketa txekean.
3. 30 euro erosketa txekean.

